



MARTXOAK 8 – EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeaz gain, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da.

Esan dugu dagoeneko, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea dela. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da, beraz: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Genero-desberdintasun estrukturalaz gain (zaintzaren gaia, kasu), mendeetan zehar, emakumeek hainbat gai eraman behar izan dituzte ezkutuan. Gure amek, gure amonek, ... ez dute hilekoaz, menopausiaz, euren gorputzez oro har, jendaurrean lasai hitz egiteko aukerarik izan. Isilpeko kontuak izan dira, emakumeen artean inoiz aipatu izan direnak, baina gizartean naturaltasunez onartu edo tratatu ez direnak.

Aurtengo martxoko egitarauan, beraz, emakumeen zikloa izango da ardatz nagusi. Hilekoari buruzko helduen tailerra eta gaztetxoek formakuntza, menopausiari buruzko kafe-tertulia, hileko-kopa eta konpresa berrerabilgarrien banaketa, emakumearen egunari buruzko ipuin kontaketa, Chhaupadi dokumentala, *Bete ingoi* antzerkia, ... Emakumeontzat hain gertukoa den, baina batzuetan hain ezezaguna den, zikloaren arlo ezberdinak landuko ditugu. Helburu nagusia emakumeon alderdi hau bistaratzea eta naturalizatzea izango da, eta herritarrak kontzientziaztea.

Hau guztia Berdintasuneko batzordean landu da, eta honetan parte hartu dute Gaztelekuko arduradun eta gaztetxoek, Deba-Itziariko talde feministak, ipuin kontalarien taldeak, Kultur Elkartek, Udalak eta Auzo Udalak, ... Herriko eragile ezberdinekin osatutako egitarau oparoa martxoaren 4an hasi eta apirila hasiera bitartean gauzatuko da.

Udalak dei egin nahi die herritarrei, ekimen edo jarduera hauetan parte hartzera!

Aurrerantzean ere lanean jarraituko dugu, gizarte justuago eta parekatuago baten alde, emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboaren alde!

Deban, 2022ko otsailaren 24an.